

EUSQUERAREN BERRI ONAC

AGUSTIN KARDABERAZEN *EUSQUERAREN BERRI ONAC* LIBURUAREN EDIZIO KRITIKOA

- Patxi Altunak eta Esther Zulaikak prestatu dute
- Kardaberaz en alde euskaltzalea agertzen zaigu liburu honetan

Gauza jakina da euskal literaturan dugun lehen testu zabala XVI. mendekoa dela, Bernard Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae* poesia-liburua. Etxeparerenarekin batera gutxi dira mende horretan plazara ziren liburu osoak. Haatik, hurrengo mendean, XVII.enean, Axular eta beste hainbaten lanei esker Iparraldeko literatura goi-mailara iritsiko da.

Hegoaldean XVIII. mendea arte itxoin beharko dugu maila horretara helzeko. Guztiok dakigunez, Manuel Larramendi izan dugu aitzindari Hegoaldeko literaturaren hastapenetan. Itzal handikoa izan zen Larramendi, eta ez zitzaizkion jarraitzaileak falta izan. Horietako bat dugu Aita Agustin Kardaberaz.

Agustin Kardaberaz Hernanin jaio zen 1703ko abenduaren 28an. Jesuita zen, eta 1731tik aurrera, Loiolan bizi izan zen. Handik, Loiolatik, hainbat misio egin zituen Gipuzkoan eta Bizkaian barrena. 1767an beste jesuita batzuekin batera Espainiatik bota eta desterrura bidali zuten. Bolonian hil zen 1770ean.

Hainbat libururen egilea da Kardaberaz, erlijioaren ingurukoak gehienak: *Cristauaren Vicitza*, *Aita San Ignacio Loyolacoaren Egercicioac*, *Ondo iltcen icasteco ta ondo iltcen laguntceco egercicioac...*

Horien guztien gainera, baina, *Eusqueraren berri onac* liburua da guretzako ezagunena. 1761ean Iruñean argitaratua, eta «Retórica vascongada» deitua izan dena, erlijioa mintzagai ez duen bakarra da. Patxi Altunak eta Esther Zulaikak azpimarratzen dutenez, *Eusqueraren berri onac* liburuan «Kardaberaz en beste alderdi bat agertzen da: ez aszetarena, baizik euskaltzalearena. Gizakoiago ageri zaigu, oso euskaldun eta euskaltzalea, apaiz, guraso, maisu eta euskaldun ganoragabeei bereak eta bi esaten dakiena».

Agustin Kardaberazek utzi zigun lana lehen mailakoa izanik, «hari ere lekutxoaz zor zaio XVIII. mendeko euskalgintzan», Patxi Altuna eta Esther Zulaikaren aburuz. Izan ere, «euskal literaturan, ikertzaile gutxi arduratu direla Kardaberazez, garai bereko beste bi idazle handik egiten baitzioten itzala: Larramendik eta Mendiburuk».

Gaur aurkezten den *Eusqueraren berri onac* liburuaren edizio kritikoan, Kardaberazek darabilen hizkeraren inguruko argitasunak, eta zenbaitetan edukiaren ingurukoak ere, ematen dituzte Altunak eta Zulaikak.

Jakina denez, iaz bete ziren 300 urte Aita Agustin Kardaberaz jaio zela. Hori dela eta, 2001eko abenduan, Deustuko Unibertsitateak eta Euskaltzaindiak sinatu zuten *Hitzarmenaren* barruan jaso zenez, hainbat ekitaldi antolatu ziren 2003an. Hasierako ekitaldia Hernani izan zen, Kardaberaz jaoiterrian, otsailean. Azaroan, berriz, hasitakoari jarraikiz, Jardunaldia egin zen Deustuko Unibertsitateko Donostiako campusean. Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Hernaniko Udalaren laguntzaz burutu ziren ekitaldiak.

EDICIÓN CRÍTICA DEL LIBRO DE AGUSTIN KARDABERAZ *EUSQUERAREN BERRI ONAC*

- Ha sido elaborada por Patxi Altunak y Esther Zulaika
- Nos muestra la faceta más vascófila de Kardaberaz

La edición crítica de *Eusqueraren berri onac* ha sido elaborada por el académico de Euskaltzaindia Patxi Altuna y por la profesora de la Facultad de Ciencias Sociales de la Universidad de Deusto Esther Zulaika. El libro viene a engrosar la colección Euskararen Lekukoak, que edita la Real Academia de la Lengua Vasca y ha sido publicado con el patrocinio de las siguientes instituciones: Diputación Foral de Guipúzcoa, Universidad de Deusto, Ayuntamiento de Hernani y Departamento de Cultura del Gobierno Vasco.

Como es bien sabido, el primer libro publicado en lengua vasca data del siglo XVI, es el *Linguae Vasconum Primitiae* de Bernard Etxepare. Más tarde, en el siglo XVII, autores como Axular, y otros, escribieron obras que contribuyeron, de manera decisiva, a elevar el nivel de calidad de la literatura hecha en Iparralde.

En el sur de Euskal Herria hubo que esperar hasta el siglo XVIII para conocer una producción literaria de calidad similar a la que se hacía en el Norte. Cabe destacar el nombre de Manuel Larramendi, auténtico pionero de una andadura literaria que fue secundada por muchos. Uno de ellos fue el Padre Agustín Kardaberaz.

Agustín Kardaberaz nació en Hernani el 28 de diciembre de 1703. Fue jesuita y, a partir de 1731, vivió en Loiola. Desde allí, ejerció como predicador en numerosos pueblos de Gipuzkoa y Bizkaia. En 1767, junto a otros jesuitas, fue expulsado de España y enviado al destierro. Murió en 1770, en Bolonia.

Es autor de numerosos libros, la mayor parte de los cuales versaban en torno a temas religiosos: *Cristauaren Vicitza*, *Aita San Ignacio Loyolacoaren Egercicioac*, *Ondo iltcen icasteco ta ondo iltcen laguntceco egercicioac...*

En 1761, en Pamplona, publicó la que hoy en día es su obra más conocida, la única que no habla de temas religiosos. Se trata de *Eusqueraren berri onac*, que también ha sido denominada «Retórica vascongada». Tal y como subrayan Patxi Altuna y Esther Zulaika, en este libro «Kardaberaz nos descu-

bre una faceta ajena a la propia del asceta, es decir, la del vascófilo. Aparece el Kardaberaz euskaldun y amante de su lengua».

La calidad de la obra de Kardaberaz le hace acreedor, en opinión de Patxi Altuna y Esther Zulaika, «de un lugar propio en el mundo de las letras vascas del siglo XVIII». Añaden ambos autores que son muy pocos los investigadores que se han ocupado de Kardaberaz, fundamentalmente porque hubo dos autores de la misma época que le hicieron sombra: Larramendi y Mendi-buru».

La edición crítica de *Eusqueraren berri onac* que hoy presentamos contiene notas aclaratorias acerca del lenguaje empleado por Kardaberaz y en ocasiones también sobre los contenidos del libro.

Como es sabido, en 2003 se cumplió el tercer centenario del nacimiento de Agustín Kardaberaz. Por este motivo, en diciembre de 2001, Euskaltzaindía y la Universidad de Deusto firmaron un *Convenio* de colaboración, de cara a organizar, en 2003, una serie de actos conmemorativos. El inicio de éstos tuvo lugar en febrero, en Hernani y finalizó en el campus de Donostia de la Universidad de Deusto, en noviembre. Todos los actos se llevaron a cabo con la colaboración de la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Ayuntamiento de Hernani.

EUSQUERAREN BERRI ONAC LIBURUAREN AURKEZPENA

Gipuzkoako Diputazioa, 2004-IV-29

*Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua*

Diputatu Nagusi jauna.
Hernaniko alkate jauna.
Jaun-andereak.
Egun on.

Aurkezten dugu egun Aita Agustin Kardaberaz-en *Eusqueraren berri onak* deritzan liburuaren edizio kritikoa Patxi Altuna euskaltzainak eta Esther Zulaika, Deustuko Unibertsitateko irakasleak paratua. Liburu hau sartzen da igaz ospatu genuen Aita Kardaberaz-en mendeurrenean.

Hasi genuen Hernaniko Udaletxean bi urtetarik Euskaltzaindiak egiten dituen Barne Jadunaldietan eta bukatu genuen Donostiako E.U.T.G.-en egun bateko Jardunaldi aberats batzuekin. Jardunaldi aberatsak Deustuko Unibertsitateko irakasleek eta euskaltzain oso edo urgazleek eskaini dituzten mintzaldi eta txosteni esker. Bada hor ere liburu baten gaia egun batez agertu beharrezkoa.

Anartean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren areto nagusian izanez, nahi nituzke eskertu, alde batetik Patxi Altuna euskaltzainkidea eta ere Esther Zulaika anderea edizio kritikoaren paratzaileak egin duten lan emankorraren gatik eta nola ez eskaini Euskaltzaindiaren izenean eskerrik beroenak Gipuzkoako Foru Aldundiari, Hernaniko Udalari eta Eusko Jaurlaritzako Kultura sailari haien diru-laguntzari esker agertu baita liburu hau Euskaltzaindiaren “Euskararen lekukoak” deritzan liburu sortan 23.a delarik.

Eta orain emanen diot hitza Esther Zulaika Deustuko Unibertsitateko Giza Zientzien Fakultateko irakasleari aurkez dezan liburua bere eta Patxi Altunaren izenean.

AITA AGUSTIN KARDABERAZ
EUSQUERAREN BERRI ONAC (1761)

Edizio kritikoaren aurkezpena

Donostian, 2004ko apirilaren 29an

Patxi Altuna
Esther Zulaika

Gipuzkoako Diputatu Nagusia,
Euskaltzainburua,
Hernaniko Alkatea,
Deustuko Unibertsitateko Giza Zientzien Fakultateko Dekanordea,
eta hona hurbildu zareten guztiok, egun on.

Euskal literaturan izan ditugun idazle zaharrei, Ipar zein Hegoaldekoiei, eta haiek utzi dizkiguten lanei erreparatzean, sarritan aitortu izan dugu bide-urratzaile direnen zordun garelara euskaldunok. Eta hori egia izanik ere, ez da gutxiago egia haien ondotik etorri direnek ere zuzen onez merezi izan dutela gure arreta, nahiz ez dugun beti asmatu guztientzat tarte egiten, edota tarte bera ematen gure ikerlanetan. Hori dela eta, berriz ere zorrak kitatzeko unean garelara esango genuke, oraingoan Aita Agustin Kardaberazekin hain justu.

Beti entzun izan dugu Hegoaldeko literatura landuak ez zuela XVIII. mendea arte nahi bezalako ibilbidea izan. 200 bat urte itxoin behar izan dugu, ordurako Iparraldeko literaturak lortua zuen loraldia geure aldean ernetzen hasten ikusteko, XVI. mendeko testigutzak bakanak izan baititugu orain arte; eta orain arte diot, berriki iritsi zaigun Juan Perez de Lazarragaren eskuizkribuaren aurkikuntzak, Gipuzkoako Diputazioak guztion eskura jarri duenak, argitasun eta aire berriak emango dizkiolako ziurrenik euskal literaturaren historiari eta baita gure hizkuntzaren ikerketari ere.

XVIII.era jauzi eginez, hor ditugu Manuel Larramendi andoaindarra, Sebastian Mendiburu oiartzuarra eta Agustin Kardaberaz hernaniarra, maiz aski elkarren ondoan doazela alde honetako euskal literatura landuaren sorreraren aipamenetan. Hirurak garaikideak, jesulagunak eta euskaltzaleak; hirurek, nork bere erara, gipuzkera literarioaren hazia ereiten lehenak.

Hirugarren izateak aurreko bien aldean egina gutxiestea dakarrela uste izango du baten batek, baina hori jakinezak sortua ere izaten dela gaineratu-

AITA AGVSTIN KARDABERAZ

EYSQVERAREN BERRI ONAC

(EDIZIO KRITIKOĀ)

*Patxi ALTUNA
Esther ZULAIKA*

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA / EUSKALITZAINDIA
BILBO 2004

ko genuke guk, ezin baitakiok ere merezimendurik, ez gaizki eginik egotz, eginak behar bezala ikertu eta agerian ipintzen ez diren artean. Eta alde horretatik, hirugarren izatetik lehena izatera iristeko inolako asmo hutsalik ez, baina nahi genuke oraingoan Larramendi eta Mendiburu bezalako idazle handiek Kardaberazi egin dioten itzala zertxobait arindu, haien antzera honek ere utzi baitigu bere ekarria, ezagun gabea askorentzat oraindik ere.

Iaz bete ziren 300 urte Agustín Kardaberaz jaio zela, eta horren aitzakian hainbat ospakizun izan genituen urtean zehar; besteak beste, otsailean sorterrian, Hernanin, egin zitzaion omenaldia, eta azaroan Deustuko Unibertsitateko Donostiako campusean antolatutako Jardunaldia.

Urte hura amaitzear zela burutu genuen Patxi Altunak eta biok gaur zuen aurrean aurkezten dugun Kardaberaz liburu hau, *Eusqueraren Berri Onac*, 1761ean idatzia eta «Retórica Vasca» deitua izan dena. Idazle hernaniarrak argitara eman zituen lan guztietatik gure artean famatuena da; eta gaiari dagokionez ere, besteetatik zeharo aldentzen den bakarra: haiek erlijioa dute mintzagai, honek berriz euskara.

Orotara dozena bat libururen egilea da Kardaberaz, ia guztiak, esan bezala, erlijiozkoak. Horieta batzuek, gainera, argitalpen bat baino gehiago izan zuten garai hartan eta ondokoetan ere, irakurleen artean lortutako arrakastaren seinale. Haien aldean, *Eusqueraren Berri Onac*, antza, ez zen sona handiko liburua izan; egun, aldiz, Kardaberaz ahotan hartu orduko burura datorrigun lehen lana da.

1761eko edizioaren ondoren besterik ere izan zuen. 1897an Bilboko *Euskaltzale* aldizkarian eman zen argitara, eta urtebete geroago berriz ere ikusi zuen argia Tolosako edizio batean. Argitalpen berrienak eta azkenak bi dira: bata, Auspoak atera zuen 1964an; bestea 1973an León de Lopetegui «La Gran Enciclopedia Vasca»-n prestatutako Kardaberaz lan guztien bilduman. Oraingo honetan, ordea, Patxi Altunak eta biok aurrekoetan ez bezalako edizioa egin nahi izan dugu, edizio komentatua edo edizio kritikoa.

Edizio hau moldatzean lehen-lehenik testu azterketa edota edizio kritikoa bera eman dugu. Testuari erantsitako oin-oharretan aurkituko ditu irakurleak hainbat argibide, hizkuntzazkoak batik bat –joskera, aditza, hiztegia eta abarren inguruak–, baina baita edukiaren gainekoak ere tarteka, bereziki interesgarri iritzi diegun Kardaberaz esanei errepara diezaien irakurleak.

Testua itxuratzeari buruz ere bi hitz esan behar ditugu. Liburuaren azkean ageri da jatorrizko testua, testu faksimilea, «La Gran Enciclopedia Vasca»-k argitara eman zuen bera, eta hain zuzen ere geurea paratzeko erabili duguna. Halaz ere, ohartarazi behar dugu hainbat aldaketa egin behar izan ditugula jatorrizko hartan oin hartu ondoan, puntuazio-marketan batez ere, gaur egungo moldeetara ekarri baititugu asko eta asko, idaztanka horrek irakurketa erraztu eta lagunduko duelakoan.

Eranskin modura-edo, liburuan barrena ageri diren adizki guztien zerrenda ere eman dugu, testuko iruzkinen osagarri.

Liburuaren gaiari gagozkiola, nabari daiteke mintzagaiaren saihets askok ez dutela gaurkotasunik galdu hasi berria dugun XXI. mende honetan. Izan ere, Kardaberazek euskararen gainean azaltzen dituen hainbat kezka eta desira gaurko edozein euskaldunek aldarrikatu ohi dituen berberak direlakoan gaudete, garaia garai eta xedeak xede.

Kardaberaz lan guztiei kutsu pedagogikoa darie: kristauen heziketa lortzea dute helburu. Eta helburu hori bera ageri da *Eusqueraren Berri Onac*-en, baina erlijiozko xedeari euskaltzetasunarena ere gaineratzen zaio. Liburuaren izenburua begiratu besterik ez dago horretaz jabetzeko: *Eusqueraren Berri Onac, eta ondo escribitceco, ondo iracurteco ta ondo itzeguiteco erreglac: cura jaun ta escola maisu celosoai Jesusen Compañiaco Aita Agustin Cardaberazec esqueñcen ta dedicatzen dieztenac*. Horixe da izenburu osoa.

Antzinako gramatikariek eta erretorikoek latinaren eta grekoaren irakaskuntzan eginak hartzen ditu abiapuntu Kardaberazek, eta euskara haiek baino gutxiago ez izaki, beste horrenbeste iristeko gaitasuna eta ahalmena aldarrikatzen ditu gure hizkuntzarentzat ere, ordurako Aita Larramendik egindakoa gogoraraziz -Hiztegia eta Gramatika-, mirespen handiz gainera.

Behin eta berriz euskararen inguruko kezka nabari du: jende eskolatua-engan eta apaizengan ikusten duen zabarkeria, narraskeria, eta euskararen kontrako jarrera salatzen ditu Kardaberazek -jaiotzako hizkera kendu nahi izatea, euskaraz egitea bekatutzat jo eta zigortzea, euskara hondatzeko ahaleginak egitea umei galaraziz, erdarazko eta euskarazko nahaspila moldakaitza gailentzea askoren ahotan... - eta aldarrikatzen ere du euskara ikasi, bultzatu eta maila gorenera eraman beharra, gure hizkuntza gai denez, Aita Larramendik esango zukeen bezala, «gauza andi, mee, goi diranac adirazteco».

Ez da, ordea, salaketak agerian jartzera soilik mugatzen. Euskaraz ondo hitz egiteko eta idazteko erregelak, euskararen artea edo gramatika, euskarazko erretorika zer den, eta zehatzago, kristau dotrinaren erretorikak nolakoa behar duen izan azaltzen digu Kardaberazek, eta hori guztia urteetan Gipuzkoan, Bizkaian eta Araban barrena predikuak eta misioak euskaraz eginaren eskarmentuak ematen dion hizkuntzaren ezagutza -sorterrikoarena ez ezik, beste hizkera batzuen ere- oinarri eta arrazoi duela.

Esana dugu Kardaberaz adierazpen eta esanetako batzuek ez dutela gaurkotasunik galdu, eta hizkuntzaz arduratzen den edonork horietako asko bere egingo lituzkeela ere esan daiteke. Guri geuri behinik behin Unibertsitateko irakaskuntzan eguneroko jardunak behin eta berriz begien aurrean jartzen dizkigun kezkak dira horren erakusgarri. Euskararen erabilera zuzena eta egokia, esan beharrekoak txukun eta argi adieraztea, on-gaitzak agerian jarri eta egun ditugun premiak asetzeko baliabideak proposatzea... guztiok ditugun egu-

neroko erronkak baino ez dira, bazter utzi gabe batzuek ahaztuxe duten hizkuntzaren sena dela orenen gainetik jarraitu behar dugun arrastoa. Kardaberaz-zen hitzetan adierazteko, «al deguna eguiteco, goragotic edo anciñagotic asi, ta ur garbia bere jatorrizco iturritic hartu bear degu».

Asmo goren batek bultzatua da Kardaberaz-zen lana, esaldi gogoangarri honetan adierazi zigunez: «gure probecho on ascoren animac salvatceco, euscarac burua jasotcea Jaincoac nai du». Jainkoaren nahia da euskara bizi dadin. Guk ere hala nahi, nahiz horretara bultzatzen gaituzten arrazoiak bestelakoak izan, garaiko ikusmolde eta egoera bakoitzak eskakizun izan ohi dituen bez-reak. Esan daiteke euskararen ongia eta haren bidezko erlijio irakaskuntza uz-artzten direla Kardaberaz-zen gogoan, eta bigarrena gailentzen oroz gainetik.

Badugu, beraz, zer ikasi gure idazle zaharregandik, eta hori iristeko ezin-besteko gertatzen da guk lehenbizi haienak ondo ezagutzea. Kardaberaz-zen lan-



osoaren azterketa, darabilen hizkerarena... Horrek guztiak erakutsiko digu ziu-
rrenik Hegoaldeko literaturan orain artean eskaini ez zaion lekua ondo iraba-
zia eta merezia duela. Gu guztion, euskaltzaleon, esku dago bide-urratzailetzat
joen ondora eramatea, euskaraz idatzitako testuetan behintzat halakotzat har-
tzekoa dela onartu ondoan. Eta geurea da egia horren ikusbidea agerian jar-
tzea.

Bukatzeko, eskerrak eman nahi dizkiegu edizio hau zuen aurrera ekartzen
lagundu dutenei: Gipuzkoako Foru Aldundiari, Euskaltzaindiari, Eusko Jaur-
laritzari, Hernaniko Udalarari eta Deustuko Unibertsitateari. Guztiei eskerrak.

Patxi Altunak eta biok paratu dugun edizio berri honek hizkuntza eta fi-
lologia gaietan adituak ez ezik euskaltzale guztiak Kardaberazen arrimura eka-
rri nahi lituzke, eta horrek inori gure literatura klasikoarekiko zaletasuna eta
jakin-mina piztea edo indartzea. Azken batean, guztiona baitugu euskara
eta hura lantzeaz eta erabiltzeaz arduratu direnek utzi diguten ondarea.

Mila esker.

KARDABERAZEN PRENTSAURREKOA.

Gipuzkoako Foru Aldundia

Donostian, 2004ko apirilaren 29an

*Alazne Mujika Alberdi,
Giza Zientzien Fakultateko dekanordea*

Gipuzkoako Diputatu Nagusia.

Euskaltzainburua.

Hernaniko Alkatea.

Jaun-andreok.

Egun on eta ongi etorriak guztiok.

Kardaberazen omenaldi honetan, nire lehen hitzak bereak izango dira. Eskuartearen dugun eskuliburaren titulu eta azpitulua hain zuzen ere, eta honela dio: *Eusqueraren berri onac eta ondo escribitzeko, ondo iracurteco ta ondo itzegiteco erregelac.*

Eta nik gehituko nuke: ‘ondo komunikatzeko arauak’.

Hitz horiek irakurri nituen unean nire Amama/amona, etorri zitzaidan burura. Berak, uste gabe seguru aski, euskaraz komunikatzen baitzekien. Etzekien ez gramatikaz, ez syntaxiaz; baina bazekien komunikatzen: entzulearen arreta erakarri lehengo (ez ditut inoiz ahaztuko azukrea ogiartearen hartu eta elkarrekin pasatzen genituen arratsaldeak) eta ondoren adinaren adinako hitzak, esaldiak, gaiak erabiliz. Gaur egun, nik neure lanean euskaraz hitzen batekin zalantzak ditudanean ere berarekin gogoratzen naiz eta berak hitz hori nola esango lukeen pentsatzen dut.

Nik neure antzinakoak ditut erreferentzia: euskaraz hitz egiteko, euskaraz bizitzeko; baina gizarteak ere bere antzinako erreferentziak behar ditu. Antzinako erreferentzia horiek erabateko gaurkotasuna dutenean, berriz, zer esanik ez.

Ezagutzaren gizartearen omen gaude. Eta ezagutza gizarteari zabaltzeko obligazioa dugu mahai honen inguruan bilduta gauden guztiok: Deustuko Unibertsitateko, Gipuzkoako Foru Aldundiko, Euskaltzaindiko eta Administrazio publikoko arduradunok.

Elkarren arteko lana beharrezkoa suertatzen da ezagutza bultzatzeko eta zabaltzeko. Horrelako ekintzei esker gizarteak hobeto eskribitzeko, hobeto irakurtzeko ta hobeto hitz egiteko ezagutza izango du. Alegia, hobeto komunikatzeko, hobeto elkar ulertzeko.

Eskerrik asko guztioi.

EUSQUERAREN BERRI ONAC

Liburukiaren aurkezpena

Gipuzkoako Foru Aldundia, 2004-IV-29

*Jose Antonio Rekondo,
Hernaniko alkatea*

1. Kardaberaz mendean, erlijiotasunak gipuzkoarren izate kolektiboaren marka edo adierazle bezala aurkeztu izan digute garaiko idazleek, maila publikoan bizi izaten zena gainera. Larramendik, bere *Corografia* lanean honakoa esan zuen: «gipuzkoarren erlijio eta errukia» beren izaeraren zati eta Gipuzkoako biztanleria osoa mugitzen den ingurune kulturalarena dira. Hau guztia, garai hartako gizartearentzat, bere zoriontasun eta aberastasun kolektiboarentzat, oso garrantzitsua izan omen zen. Horregatik, egozten zaion mistizismoaz gain, Kardaberazek, ispiritualtasuna, bere autoestimu eta herri zentzuaren osagaia bezala, bilatzen zuen herri honen behar praktikoa ere landu zituen. Eta honetara bideratu zuen bere lan literario guztia. Haren lanak, Jainkoarekiko harreman mistikoa baino gehiago, herri misioaren praktikotasuna bilatu zuen.

2. Beraz, fedea eta euskara Jainkoaren nahiaren arabera bateratuta agertzen dira. Euskara, jainkozko xedez, euskaldunen ispiritualtasuna igortzeko tresna praktikoa eta eraginkorra da eta honetara bideratuko du bere lana.

3. Manuel Lekuonak, Kardaberaz «*gizon karismatikoa*» zela adierazi zuen. Haren biografoek seinalatu dutenaren arabera, karismarik haundiena herriaren aurrean demostratu omen zuen Aita Kardaberazek. Gaur aurkezten ari geran liburu honek izan dituen edizioetako baten hitzaurrean, «Aita Agustín Kardaberaz Jainkoaren zerbitzari handiaren Bide Laburrak, apaiz batek jarriak» izenburupean honela dio: «asi zanetik, jendetza talde andiak jarraitzen zioten, eta eleizetan kabitu ezinik, zela edo plaza zabaletan bere itzaldiak egin bear izaten zituen. Bera ikustea naikoa zan, pekatuen damu ta penitentzira jendeak mugitzeko; bada padezitzen zituan eritasunak eta zeramakien penitentziatzko bizitza zala bide, azal eta ezur-uts biurtua zegoen».

4. Hegel materialistak, honela esan zuen: «bere garaiak esaten duena adierazteko eta gauzatzeko gai dana, garaiko gizon handia da. Garaian intrinsekua eta oinarritzkoa dena egiten du eta garaia bera irudikatzen du». Mistiko

bat materialista batek proposatutako hitzekin epaitzen duen paradoxa alde batera utziz, Kardaberazek «garaiko gizon handi» horrek dituen ezaugarriak ditu, alegia:

- Garaiak eskatzen zuen karisma dauka.
- Garaiko nahiak adierazten ditu.
- Jendeak garaiari datxekiona biltzen du.
- Testuinguru erlijiosoan gertatzen ari ziren tentsio eta mehatxuen aurrean, gipuzkoar eta euskaldunen katolikotasun ingurunea zalantzan jartzen zuten XVIII. mendeko jendearen behar izpiritualak bermatzen ditu.
- Haren lanarekin izaera, kultura eta hizkuntza indartu zituen. Garaiko eta herriko benetako oinarri eta funtsa.

Euskeraren berri onac edizio kritikoaren egileei zorionak eta eskerrik asko.

AGUSTIN KARDABERAZ
(*Hernani 1703-Genova ?? 1770*)

Donostia, 2003-XI-27

*Joxe Joan Gonzalez Txabarri,
Gipuzkoako diputatu nagusia*

Koldo Mitxelena handiak, 1960an esan zuen bezala, «Resulta sorprendente que, mientras en el País vasco-francés personas bien dotadas de talento y de saber desarrollan en el siglo XVII un movimiento literario importante aunque reducido casi al campo religioso, no se encuentran a este lado de los Pirineos más que traductores de catecismos que, a pesar de recurrir a cada paso al préstamo y al calco literal, parecen haber tropezado con muchas dificultades en su tarea» (Michelena, Luis (1960), *HLV*, 63. or.).

Beraz, Gipuzkoan hitz egiten diren hiru euskalkiek ez zuten ibilbide sendorik egin XVII. mendean barrena. Aurreko uzta, XVI. mendekoa, alegia, hitz gutxitan bil daiteke: errefrau-bildumak. Horra hor, XVIII. menderarte gure lurraldean hitz egiten diren euskalkiek mundu idatzian urratua zuten bide laburra. Eta bide labur honek bi kezka nagusiri erantzuten dio: bata, erlijiosoa; bestea linguistikoa.

* * *

Gauza jakina da Eliza, goi-mailako elizgaiez jarduteko latinaz baliatu zela, artean hizkuntzarik seguruena zelako: latina hizkuntza landua zen, arautua, finkatua eta goi-mailako elizgai horietaz ziharduten guztiek ezagutzen zutena, baina kristau-herriari zuzentzeko, ordea, herri-hizkuntzak hobetsi zituen: kristau bakoitzari bere hizkuntzan eman behar zitzaion elikagai izpirituala. Sasoi haietan latinaren eta herri-hizkuntzen artean izan zen lehian, Elizaren jarrera herri-hizkuntzen garapenaren mesedetan izan zen. Honela, Erreformaren eskutik etorri zen hitz-lauz egindako euskarazko lehen liburua, XVI. mendean; eta Kontrarreformaren eskutik etorriko zen XVII. mendean euskaraz idatzi zen ia dena, guzti-guztia ez, baina bai gehiena. Katolikotasuna sendotzea zen testugile haien asmoa, eta hartzaileengan egarri izpirituala sustatzera edo egarri izpiritual hori asetzerara bideratu zituzten beren obrak. Jomuga horrekin sortutako testuek, beste egitekorik ere bete zuten: euskara idazketara eramatea; zehazki, euskal prosa idatziaren eratze-proze-

suaren hastapena Erreformatik eragindakoa da; gero, kontraerreformatik sustatutako testugintzak bideratuko du prozesu hori. Haatik, euskalki desberdinen parte hartzea ez zuen berdina izan: XVIII. mende arte ez zuten ekarri handirik egin Hegoaldeko euskalkiek.

Hizkuntza bera ere kezka eta interesgune dela esanda. Zehaz dezagun. Herri-hizkuntzak latinaren pareko bihurtu behar dira; eragiketa hori, berriz, herri-hizkuntzak hizkuntza landu bihurtuz buru daiteke bakar-bakarrik. Herri-hizkuntzazale haiek, orduan, hainbat ekimenen bidez helburu hori eskuratzea bideratzen dira: herri-hizkuntzen apologiak zabaltzen dituzte lau haizetara, herri-hizkuntzen gramatikak egiten dituzte, idazle greko-latindar klasikoek landutako goi-estiloaren pareko estiloa norbere hizkuntzan lortzeko bide-erakusle diren poetikak eta erretorikak... Herri-hizkuntzatik hizkuntza landurako jauzia egiteko bitarteko dira ahalegin horiek denak. Herri-hizkuntzen aldeko apustua ez zen goizetik gauera erabaki: luzaroan iraun zuen latin edo hizkuntza landuaren eta herri-hizkuntzen arteko tentsioak, baina poliki-poliki herri-hizkuntzok ordu arte latinak betetako barrutiak hartzen joan ziren.

* * *

Garaiak erakutsitako kezkekin bat eginez, hainbat ekimen burutu zen euskara lizkuntza duinen irresuman kokatzeko. Ekimen horien artean bada Gipuzkoa honetatik egindakorik. Hala, Juan Martinez de Zaldibia batxillerrak idatzitako *Suma de las cosas cantábricas y guipuzcoanas* datorkit burura, Gipuzkoako lehen historia honetara euskarari buruz zuen ikuspegia dakarrelakoa. Tolosar honetaz gain, nola ez, Esteban de Garibai arrasatearra aipatu nahi nuke, bi arrazoirengatik gainera: batetik, euskara gramatika iragazitik pasatu gabe atzematean, ez diolako aparteko zailtasunik ikusten gramatikadun bihurtzeko; izan ere, erregeladun hizkuntzatat dauka euskara, latinak baino gutxiago dituen arren (gaizki ikusten ez duen ezaugarria, bestalde); eta bestetik, erretrauen biltzaile aparta delako merezi du aipua. Bi alderdiok elkarri hertseki loturik daude; izan ere, muin-muinean hizkuntza-eredu arautua, erregeladuna, kanonikoa eraiki behar baita latinarekin norgehiagokan sartzeko. Villalon-ek 1558an dioenez,

«todos cuantos hacen cuenta de las lenguas y de su autoridad dicen que la perfección y valor de la lengua se debe tomar y deducir de poder ser reducida a arte; esto es, de pasar por la descripción gramatical».

Garibaik badaki hori, eta horregatik ikusi nahi luke egina euskararen gramatika bat. Garibai, halaber, literatura paremiologikoa berreskuratu nahi duen lehen Errenazimenduko tradizio humanistan txertatzen da. Korrante poetiko-humanisten barnean, literatura paremiologiko honen eginkizuna da hizkuntzaren erabilera naturala ahalbidetzeko tresna egokiak ematea.

* * *

Noan hartu dudan abiapuntura: XVI-XVII. mendeetan Hegoaldeko euskal testu apal eta urriak kezka erlijioso edo linguistikoari erantzuten diote beraz; kezka linguistikoari, gainera, gehienetan gaztelaniaz heltzen diote. Dena den, hizkuntza baten duintasuna beste hizkuntza batean adieraztea eta azaltzea ez da izan euskaldunon bekatua bakarrik, ez da izan euskaldunon ondare pribatua soilik. Egia da; erdaraz egindako euskararen lehen apologiak baino bi mende luze lehenago, Dantek berak XIV. mendearen hasieran *De vulgari eloquentia* idaztean, latina hautatu zuen herri-hizkuntzaren gorespena egiteko. Seguraski, gertatzen zaiena honakoa da: idazteko beren kultura hizkuntza hautatzen dute eta gosten duten hizkuntza ez daukate maila horretan.

Kezka erlijioso eta linguistiko berdinei erantzuten jarraitzen dute XVIII. mendean ere, Jesusen Lagundiko Aita Larramendi, Aita Mendiburu eta Aita Kardaberaz mendean ere. Kezka erlijiosoak bizi-bizirik dirau eta kezka horri helduz esango dituzte sermoiak eta idatziko liburuak. Baina, orain, liburu horiek XVII. mendeko *katixima itzultzaile* haien maila gaindituko dute, gipuzkerazko prosaren eraketan urrats nabarmena eginez. Eta kezka linguistikoak ere bizi-bizirik dirau. Artean, euskarak erabil-eremu landuetatik kanpo jarraitzen du, ez du oraindik eta behin betiko garaitu herri-hizkuntza / hizkuntza landua borroka. Borroka horretan jarraitzen dute XVIII. mendean ere, hizkuntza duina, landua eta besteen parekoa eskuratu nahian. Kezka linguistikoa kezka erlijiosoaren menpe dago aipatu josulagunengan. Aita Larramendik euskara duinean egindako prediku eta irakaskuntza erlijiosoa nahi du. Jomuga erlijioso hau da, euskara goastera, sustatzera eta aztertzer daramana. Eta jomuga horri esker, jaioko da, besteak beste, euskararen lehenbiziko gramatika. Garibaik hain zaila ikusten ez zuen eginkizunari, azkenean (bi mende igaro baitira) iritsi zaio ordua: Aita Larramendiren *El imposible vencido. Arte de la lengua Vascongada* (1729) da argitaratzen den lehen euskal gramatika. Horra «Ezina egina»

Beraz, Aita Larramendik euskara go스테az gain, aztertu eta sustatu egingen du. Sustatzearen eremu honetan lekutuko nuke hainbat euskal liburu argitara ematea. Alderdi honetatik zorretan dira berarekin, beste zenbaiten artean, Aita Mendiburu eta Aita Kardaberaz. Aita Larramendiren ildoan, Aita Kardaberaz testugintza behar erlijiosoak piztera eta asetzer bideratuko da. Bazen beharrik! Izan ere, haren obra erlijiosoa ez zen zokoratuta gelditu liburutegiren bateko apaletan; aitzitik, asmo erlijiosoarekin idatzi zituen hainbat liburu behin baino gehiagotan argitaratu ziren. Asmo horrekin hezurramitutako liburuen ekarria, bestalde, ez zen hor gelditu: euskara idatziaren historiaren atal ere badira. Historia horretan gipuzkeraren eraketa-prozesuaren parte dira, maila askoz apalagoan, baita bizkaierarena ere, Kardaberazek dotrina bat bizkaieraz idatzi zuen neurrian. Eta kezka erlijiosoari erantzuten dion obrarekin batera, kezka linguistikoari erantzuten dion obra nagusi bat ere utzi digu Kardaberazek: *Eusqueraren Berri Onac: eta ondo escripticeco*,

ondo iracurteko, ta ondo itzeguiteco Erreglac. Izenburua aski esanguratsua da: euskara duina erabiltzeko arauak, euskara landua, dotorea, beste hizkuntzen parekoa.

Kardaberazen jaiotzaren hirugarren mendeurrena betetzen dela eta, Deustuko Unibertsitateak eta Euskaltzaindiak prestatu duten Jardunaldi honetako egitarauak gizona eta haren obra aztergai hartu dutelarik, Kardaberaz euskalgintzaren historian lekutzeko aukera emango digute.

Euskararekiko atxikimendua dugun euskaldunok haiekin dugun zorren zati bat kitatzeko aukera ere izango dugu Jardunaldi honekin. Izan ere, euskararen normalkuntza nahi dugunok, euskara noranahi naturaltasunez hedatua ikusi nahi dugunok, asko zor diegu gipuzkoar idazle aitzindari haiei, euskara kultura hizkuntza bilakatzeko ibilbide luzean urratzaile nabariak izan zirelako. Ordezkatzen dudan Erakundeak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, pozik ikusten du aitzindari haiek abian jarritako egitasmoek utzi dutela uzta oparoa. Beraz, haiek orduan izan zuten ikusmena izaten asmatuko al dugu aurrerantzean ere.